

## **1995eko ABUZTUAREN 29ko URJENTZIZKO BILKURA**

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko abuztuaren hogeitabederatzian, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Inaxio Olaetxea Karrera, Julian Zubeldia Aierbe eta Ima Zubeldia Luloaga; Lizartzako Herriaren Alde Taldeko hiru zinegotziak ez dira agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hogeitamalau bat herritar, Urjentzizko Bilkuran bildu dira, gai hau tratatu delarik:

### **URJENTZIZKO BILKURARAKO ARRAZOIA**

Alkateak, hitza harturik dio: Tratatu nahi den gaia benetan garrantzi handi eta presazkoa denez, Bilkura honetan, urjentziz gai hau tratatzea proposatu du.

Proposamena, aho batez onartu da.

### **XABIER ZEBERIOREN ATXILOKETA**

Xabier Zeberio, Lizartzako gazteak, bere burua Espainiako Audentzi Nazionaleko Carlos Bueren epailearen aurrean aurkeztu ondoren, honek bere kartzeleratzea agindu du, behin behineko askatasunaren truke milioi batetako fidantza ezarri diolarik.

Zigor hau, azken egunotan Euskal Herriaren etsai armatuak (Guardia Zibila eta Ertzantza) Arabako lurraldeetan erakutsi duten harrokeri eta prepotentziaren adierazgarri hutsa da, inposatu duten okupazio militarren justifikazio gisa erabiliko dute, batez ere beraien frakaso lotsagarria eritzi publikoaren aurrean antzesteko.

Gidoia, behin eta berriz errepikatua, oso ezaguna zaigu:

- Harrapakariak amorru bizian edonorren eskubideak zanpatzera; Xabier Zeberioaren familiak jasandako tratu basatia horren lekuko.

- Atzetik nagusiak, Espainiaren defendatzaile sutsuak, belikoak, Galindokumeak, beren indarkeriaren nagusitasuna aldarrikatzen.
- Hauen eskutik morroiak, epaile eta "justizi tribunalak, zenbait komunikabideen babes konplizeaz gizartea nahastera; lada, ez dakigu nor den epaile eta nor kazetari.

Eta guztia txalotuz borrokoak, Madrilera makurturiko euskal alderdiak, bere burua "jakintsu"tzat duten ospe handiko pertsonai ilunak eta sasi bakezaleak, Herri honen aurrean mutu bezain mezugabeak.

Honen aurrean, Lizartzako Herri Batasunak Udal Batzar honi, ondorengo proposamenak bere osotasunean onartzea eskatzen dio:

- 1.- Lizartzako gaztea den XABIER ZEBERIORi ezarri dioten zigor fisiko eta ekonomikoa salatzea eta elkartasuna adieraztea.
- 2.- Euskal Herriko gazteak, gazte izateagatik jasaten ari diren zigorra behin eta berriz gaitzestea. Gure Herria defendatzea eta bere askatasunaren alde borrokatzea ez da inolako delitua, ohorea baizik.
- 3.- Estatu espainola eta babesten duten indar politiko zein militarrek, Herri honekiko duten jokabidea behin eta berriro salatzen dugu.

Xabier Zeberioaren Atxiloketa dela eta, Lizartzako Herri Batasunak aurkeztutako proposamenak, aho batez onartuak izan dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.